Historia, prehistoria

• JOXE AZURMENDI •
[FILOSOFOA]

Ekologia, Indiazaletasuna, feminismoa, *pentsamendu ahula*, modan daude —mila modutako erreakzioak gure zibilizazio hertsakorraren aurka—. Hori da orain supermodernoa Europan. Baina hori dena ez al dago ja euskal pentsamendu arkaikoan aspaldi? Barandiaranek jasotako euskal ipuinen barne-barneko filosofia, mugida moderno horiek denak baino ez ote da askoz libertariago, funtsean modernoagoa?

Egia esan, holako zerbait entzun eta konpromisoko irribarrea jartzen zaigu arpegian. Denbora asko ez da, kritiko batzuek Barandiaran eta, antropologo handitzat geneuzkanak, tesi politiko batzuen justifikatzaile soil deklaratu zizkigutela. (Tesi politiko horiek arrazistak dira noski, kritiko hauentzat). Zuhur asko, beraz, gure antropologo eta antzinatean adituak, laborategi estiloan jardun ohi dira, aseptiko txuri-txuri, esfortzurik handiena eginez politikaren kutsurik txikien-txikiena ebitatzeko. Baina paleoantropologiak, genetikak, etab., Euskal Herritik landa orobat ikerketan jarraitzen dute, eta horien ekarpenak maiz ez dira euskaldunontzat interesik gabekoak *politikoki* ere. A. Mtz. Lizarduikoaren *Euskal Zibilizazioa* liburuak *Gure herriaren sustraien bila* du azpititulua; Naberanen *Sugearen Iraultza*-k *Euskal Herria iraganalditik geroaldirantz*. Biak Gaiak Argitaldarian agertuak. Biek ere, zientzien ekarpen berrienez baliatuz, euskal antzinate, mitologia, folklorearen berrirakurketa bat proposatzen digute, eta etorkizunaren *proiektu* politiko berri bat, berrirakurketa harekin eskuz esku.

Funtsean liburu politikoak dira, kulturalak izanez. Politika eta kultura ez omen baitira nahastu behar; baina kristalezko kanpaipe metafisikoetan berezi ere ezin dira egin. Ekologista edo feminista izateko ez dago noski Mariren mitoan interesatua izan beharrik; baina Mariren mitoan interesatuak, han ekologista edo feminista izateko zerbait ikasiko du. Euskalduna bada, tradizio horretan bere identitatearen ezaugarri bat ikus dezake. Autokontzientzia horretatik proiektu bat erne dakioke buruan eta bihotzean. Proiektuak autokontzientziaren batetik ernetzen baitira beti. Autonomia edo independentziarako, herri baten nahikari biluzi soila printzipioz aski da: herri bezala nortasun bat izateko, kultura behar da, historia bat, memoria; proiektu politikorik herri bezala izateko, autokontzientzia bat.

> *Herri bezala nortasun bat izateko, kultura behar da, historia bat, memoria; proiektu politikorik herri bezala izateko, autokontzientzia bat*

Autokontzientzia, ordea, mendebaleko kulturan auzitan daukagun kontua da. Aurrena Europaren karakteristikoa omen den *Modernitatea* ipini da auzitan: razionalismoa, progresoaren ideia, deusgizatzen gaituen unibertso teknikoa. Gero, alabaina, guzti honen jatorrizko iturburuaz galdetu da: mendebaleko metafisikan dago iturria, erantzun du Heideggerrek. Grezian hasten da mendebalearen gaitza, gauzen zerizatea zentzu teknikoan, dominazioaren zentzuan, faltseatu denean. Harrezkero razionalki edo logikoki (Logos) pentsatzea bera, dominaziorako tresna bihurtu du mendebaleak. Hauek nahikoa azalduta daude *Teknikaren Meditazioan* (Gipuzkoako Kutxa, 1998).

Nietzschek eta gero Heideggerrek Greziako historiaren erdian marraztu duten eten moral, sozial, filosofiko erradikal honek (Platon versus Homero: antzinaroa versus Modernitate grekoa), beste eten erradikalago batera eraman ditu egungo ikertzaileak: haustura soziokultural benetan zeharokoa inbasio indogermanikoek eragin dutena izan da. Aurretik *Jainkosaren zibilizazio* nekazari, berdinzale, bakezkoa; gero, Zeus eta jainko olinpikoen zibilizazio arpilaketari, hierarkiko, gerrazalea. Momentu honi begiratzen diote batez ere Naberanek eta Lizarduik beren liburuetan (*Sugearen Iraultza* eta *Euskal Zibilizazioa*, 1998).

> *Barojak, Oteizak, Mirandek deitu izan digute behin eta berriro geure erro zahar haietatik mundu modernoan biziberritzera*

Nik batez ere Greziako gorabeheren publikazioak jarraitu ohi ditut, eta zibilizazio aurreindogermaniko eta indogemanikoaren talka itzel horren aztarnak, esparru guztietan ageriratzen dituzte ikertzaileek orain: indusketa arkeologikoetan eta artean, mitologian, kultuan eta erlijioan, filosofian, literaturan. Odiseo, egundoko ekaitz baten ondoren, txirikorda ederretako (Mari bezala!) Kalypso ninfaren uhartean salbatzen da naufragiotik. Kobazulo nasai batean bizi da Kalypso. Entzun poetaren leku deskribapena: sukaldean su handi bat dago piztuta, haren parfume gozoa uhartean urrutiraino hedatzen da. Odiseo heldu denean, ahots ederrez kantuan ari da Kalypso, urrezko ardatz batean iruten. Kobaren inguruetan makal, lertxun eta altzipres usaintsuen baso berde bat dago, hego zabaletako gabirai, hontz, bele eta hegaztien kabileku. Baso landua alegia, jardin bat (ez *naturala*). Hantxe bertan koba ondoan mahasti bat ikusten da mahatsez bete-bete; eta lau iturritxo, bata bestearen hurrean, lau aldeetarantz dariola, bioleta eta apio belaze berde naroak inguru direla. «Hilezkor bat bera zur eta lur geratuko zen hara helduz gero!», hunkitzen da Homero.

Irakurleak aisa igarri dion bezala, *Odisea*-ko pasarte hori naturgune prehistoriko kultual baten deskribapena da, *tenplo* edo jainkozkoen delizien jardin sakratu batena. («Zuhaitzak, ibaiak eta ekaitzak ditugu jainko, eta Natura tenplu», aldarrikatuko du Lizarduikok). Kalypsok jatorrizko Europa aurreindogermanikoa esanahi du. Baketsua, gozoa, *panteista*. Zazpi urte egon da hor Odiseo gozoan eta atseginean *preso*. Gero, Kalypsoren besoetatik zakarki *askatu* eta, heroia berriro bere abenturetan benturatuko da itsasoan. Behiala Homerok bezala Nietzschek, eta kontserbazale guztiek gaurrago —falangistek adina Mirandek, bere anbiguotasun askotako bat gehiagorekin— heroi indogermano gerreroaren tentazioa eta endakatzeko arriskua ikusiko dute zibilizazio *modernoaren* delizia horietan. Aitzitik, Naberanek eta Lizarduik, gure antzineneko antzinaro hartatik etorkizunari buruz paradigma berri bat asmatzera deitzen digute —beste askoren aurretik Heideggerrek ere egin zuena, baina gero konkretatzen ez zekiena, zen bezalako eskuindarra izaki bera—. Asko baitira gaur, eredu berri edo hastapen berri baten bila «iturrietara itzulia» galdatzen dutenak, filosofian bezala erlijioan, sozialismoan, artean, kultura europarrean, mito iragana birreskuratuz etorkizuna birproiektatzeko asmotan. Ez da orainaren ihesi iraganera itzultzea: «dialektika retroprogresionistaz» mintzo da Ortiz-Osés.

Krutwigek gure erroak Grezian daudela eta erro horiek zaintzera hotsegiten zigun. Baina guk erroak ez ditugu Atenas eta Jerusalemen bakarrik, aurrehistorian ere baditugu geure-geureak, oraindik ez guztiz ihartuak, zaindu eta lantzea merezi dutenak. (Gure izpirituak ez du aberri bat bakarra). Barojak, Oteizak, Mirandek deitu izan digute behin eta berriro geure erro zahar haietatik mundu modernoan biziberritzera. Orain urte batzuk J. I. Hartusgak ikerketa zinez iradokior ezinago bat eman zuen ezagutzera, sugerentziaz betea, *Euskal mitologia konparatua*, 1987. Ortiz-Osések lan handia egiten du, nik uste. Zenbait artistaren lana, Sarasuaren *indigenismoa* edo *Obabakoak* bera linea honetan irakur daitezke apika, etc. Ez dira Naberan eta Lizarduí bakarrik. Badirudi poliki-poliki proiektu batek, Euskal Herriaren kontzeptu berri batek, burua altxatu nahi duela gure artean.

Nazio arazoaz hainbat ikerketa/gogoeta ezkerretik egin duen Pierre Vilar historialari komunista bikainaren bi idazbildumatxo argitara berriak ditu Hiru Argitaldariak, *Historia, nación y nacionalismo. Cuestion nacional y movimiento obrero*, 1998, eta , *El hecho catalán. El hecho portugués*, 1999. P. Vilarrek derizkionez, kontzientzia nazional katalanarentzat historiak ukan duen inportantzia, Euskal Herriarentzat aurrehistoriak izan lezake.

hirusta...

MIKEL REPARAZ

Zeinek maite ditu?

Mauritania eta Senegalen, munduko beste leku askitan legez, tradizioa da tea hartzea. Hiru te, hiru esperientzia agintzen ditu ohiturak. Bizitza bezain gogorra den tea hartzen da lehenik, maitasuna bezain gozoa bigarrenez, eta heriotza bezain mina azkena. Behin eta berriz, mutikoak —tepotetik katilura, katilutik tepotera— tradizioa hotz polarraren pean errepikatu du. Erritoa luzea da, lasaia, etsipengarria afrikarra ez denarendako. Baina tearen lurrinak, berotasunak, gainontzekoak erakarri ditu. Piano jole errusiarrari eta txinatarrei ez zaie horren etsipengarria iduritu erritoa, eta magrebiarrei Marrakex epela etorri zaie gogora. Mutikoak guztiak gonbidatu ditu, eta isiltasunean —inork ez baitu albokoaren hizkuntza ulertzen— Senegaldik ekarritako tea denek dastatu dute, etorkinaren komunio sinbolikoan. Bizitza bezain gogor, maitasuna bezain gozo, heriotza *bezain min*.

Bien bitartean, etxetik lanerako bidean, kafesne pasteurizatu-motela gosaldurik, Babelian aurkitu dut neure burua. Ametsetan ote nintzen dudan, errealitatearen arrastoaren xerkan, ordua galdetu diot tearen inguruan bildutako ehunka fantasma haietako bati. Goizeko seiak direla nik baino hobeki daki, baina ez dit ihardetsi. Aldiz, esperoan jarraitu du Gobernu Ordezkaritza aurrean, inoiz lortuko ez duen lan baimena erdiestetik hurbilago dagoela sinetsirik. Bizitza bezain gogor, heriotza bezain min.